



DANI BLANCO

**Iñaki Antigüedad**

AMAIURREKO DIPUTATU OHIA ♦

## Badugu zer ikusi eta ikasi

ESKOZIAK aitortu dioten erabaki-eskubidea gauzatu eta lehengo Estatuan segitzea erabaki du, egunekoa kudeatu eta gerokoa bideratzeko eskumen gehiago jasotzeko promesez. Hala ere, epe ertainean han izan daitezkeen eszenarioak oso irekiak dira, estatua izatea barne, orain arte ibilitakoa sinesgarria den seinale. Hortaz, eskubidearen jabe izateak ez dakar, ezinbestean, estatua den burujabetza formaren alde egitea. Derrigorrezkoa izanda ere, ez da estatu izateko nahikoa. Hots, eskubidea gauzatzek burujabe egiten du herria, berez, baina estatua sortzea bestelako urratsa da, herritar gehienek etorkizunera doan bidea funtsean eurek kudeatzearena, hori bideragarri sentituta.

Momentuz Eskozian konformatu egin dira Londresek prometatuekin. Ez badu hark betetzen, estatu izatea eskura izan dezakete eskoziarrek. Eta betetzekotan? Konformatuko ote gaurko eskoziarrek? Eta biharkoak? Non dago burujabetzaren muga? Zenbat da nahiko? Gurera etorrita, batzuek Kontzertuaren inguruko autogobernu-gaurkotzearekin herritar gehienak konformatzeko moduko maila batera heldu nahi dute, eta horraxek mugatu euren kontsulta. Puntu eta azkena. Baina burujabe izateko ezker subiranistok ditugun arazoak askoz haratago doaz, botere-guneak gertu,

garden, zabal, eraginkor behar ditugu, nazioartean hartu behar ditugun konpromisoak bertatik betetzeko ere. Hortaz, gaurko Europar estatuek duten beste burujabetza izan liteke gure tarteko helmuga sinesgarria.

Burujabetza prozesuen eredu desberdinak. Katalunian mugimendu zibilak bertan eragindako prozesu politikoa, eta galdera argia boto-paperean. Eskozian bertako alderdiek bertan eragindako mugimendu zibil-politikoak, eta galdera argia paperean. Eusko Jaurlearitzaren alderdia gobernu zentralaren esperotan, eta balizko biharamunean egun bateko mobilizazio soziala buruan, erantzun bakarra paperean. Bitartean, ezker subiranistok...

Izan ere, Eskozian nagusitutako ezetzak agerian utzi ditu gure prozesuaren gabeziak. Hala adierazi dute prentsa hurbilean politikaren ohiko hainbat analistak. Funtsean, berez integrala izan behar duen prozesua, sozio-ekonomiko-politikoak, kudeatzea zaila dela; neurriko sinesgarritasuna lortzeko lan eta denbora asko eskatzen duela; mobilizazioak inportanteak izanda ere edukien bide-orria ezinbestekoa dela, baina horrekin batera, Europako XXI. mendean posiblea dela! Badugu zer ikusi eta zer ikasi. ■

*Eskozian nagusitutako ezetzak agerian utzi ditu gure prozesuaren gabeziak. Hala adierazi dute prentsa hurbilean politikaren ohiko hainbat analistak*



DANI BLANCO



**Kattalin Miner**



KAZETARIA

## Bulnerabilitatea

ITZIAR ZIGAK behin idatzi zuen “zer esango ote duten” delakoak agintzen duen jendartean bizi garela. “Zer esango ote duten” horrek nahi dugun hura, garen hura edo probatu nahi dugun hura mugatzen digula. Muga horiek hain zuzen, esfera publiko guztiak erregulatzen dituen moralak dutela oinarri.

Bulnerabilitate egoera handian jartzen omen gara publikoki jendarte zuzenaren marra gorriak laztantzen ditugunean. Eta bulnerabilitateari izua dio gizakiak. Horregatik egiten diogu uko askotan gehien desiratzen dugunari, apurtzeari, hitzaldi bat emateari, iritzi bat plazaratzeari...

Esfera publikoa ordea, ez da berez bulnerablea. Bulnerable sentitzen gara, *de facto* leku hori okupatzea tokatzen ez zaigunok hori hartzen dugunean. Eta noski, hartu behar ez gukeen bezala hartzen dugunean.

Aurreko astean inoiz baino bulnerableagoa zen eszenatoki bat hartu nuen, eta “ausarta” deitu zidan batek baino gehiagok. Eta agian hala da, baina egia dena da, dagoeneko hara heltzerako “zer esango ote duten” mamu guztiak uxatuta nituela. Eta ez dakizue benetan, horrek ze lasaitua ematen duen. ■

